

Año LXXX. urtea

275 - 2019

septiembre-diciembre  
iraila-abendua



# Príncipe de Viana

SEPARATA

## Presentación / Aurkezpena

Asun MAESTRO PEGENAUTE

# Sumario / Aurkibidea

## Príncipe de Viana

Año LXXX • n.º 275 • septiembre-diciembre de 2019  
LXXX. urtea • 275. zk. • 2019ko iraila-abendua

**LAS BIBLIOTECAS DE NAVARRA:  
ACCESO A LA INFORMACIÓN Y EL CONOCIMIENTO**  
**NAFARROAKO LIBURUTEGIAK:  
INFORMAZIOA ETA EZAGUTZA ESKURATZEKO BIDEA**  
Asun Maestro Pegenau (coord./koord.)

### Presentación / Aurkezpena

Asun Maestro Pegenau

1051

**BIBLIOTECAS PÚBLICAS / BIBLIOTECA DE NAVARRA  
LIBURUTEGI PUBLIKOAK / NAFARROAKO LIBURUTEGIA**

**La Biblioteca de Navarra, orígenes y evolución en la sede de Mendebaldea  
(2011-2018)**

Amaya Prado Fernández

1065

**La Red de Bibliotecas Públicas de Navarra**

Mikel Zuza Viniegra

1091

**El Depósito Legal, garante de la conservación**

María Luisa Garcés Álvarez

1109

**La biblioteca taurina de José Luis Ibarra y su donación a Navarra**

Juan Francisco Elizari Huarte, Fernando Cirauqui Ainzúa

1129

**La Biblioteca Navarra Digital (BiNaDi)**

Amaya Prado Fernández

1153

**El patrimonio cinematográfico y audiovisual en la Biblioteca**

y Filmoteca de Navarra

Juan Francisco Elizari Huarte

1175

**Los clubes de lectura y las bibliotecas navarras**

Jesús Arana Palacios

1195

# Sumario / Aurkibidea

## BIBLIOTECAS UNIVERSITARIAS UNIBERTSITATE LIBURUTEGIAK

<b>La Biblioteca de la Universidad Pública de Navarra, hoy</b> <u>Belen Altuna Esteibar</u>	<b>1213</b>
--	-------------

<b>El Servicio de Bibliotecas de la Universidad de Navarra</b> <u>Isabel Iribarren Maestro, Víctor Sanz Santacruz</u>	<b>1229</b>
--	-------------

## BIBLIOTECAS ESPECIALIZADAS LIBURUTEGI ESPEZIALIZATUAK

<b>Biblioteca de Ciencias de la Salud del Departamento de Salud</b> <u>Juan López Segura, M.<sup>a</sup> Ángeles Rodríguez Bosch</u>	<b>1247</b>
---	-------------

<b>El Centro de Estudios del Museo Oteiza y su biblioteca</b> <u>Borja González Riera</u>	<b>1263</b>
--	-------------

<b>Biblioteca del Archivo de Navarra</b> <u>M.<sup>a</sup> Pilar Los Arcos Sevillano</u>	<b>1273</b>
---	-------------

<b>Biblioteca de la Ciudad de la Música</b> <u>Arantza Etxeberria Montoya</u>	<b>1289</b>
--	-------------

<b>Centro de Documentación - Biblioteca de Mujeres de la Fundacion IPES</b> <u>Amaia Barandica Ortiz de Zárate, Rut Iturbide Rodrigo</u>	<b>1307</b>
---	-------------

## BIBLIOTECAS PATRIMONIALES ONDARE LIBURUTEGIAK

<b>El Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico de Navarra</b> <u>Roberto San Martín Casi</u>	<b>1323</b>
--	-------------

<b>La Biblioteca Central (provincial) de Capuchinos de Pamplona Extramuros</b> <u>Miren Lara Astiz, José Ángel Echeverría OFMCap</u>	<b>1341</b>
---	-------------

<b>Liburutegi kapitularra, oinatzak Iruñeko oroimen kulturalean</b> <u>Álvaro Aranguren Urrestabaso, Ainara Galarza Peña</u>	<b>1359</b>
---	-------------

# Sumario / Aurkibidea

## OTROS TEMAS

### BESTELAKO GAIAK

**Una historia de ASNABI, a punto de cumplir 25 años (1995-2019)**

Clara Flamarique Goñi

1379

---

**Estudio de impacto socioeconómico de las Bibliotecas de Navarra**

Fernando Ross García

1399

---

**Curriculum**

1413

---

**Analytic Summary**

1419

---

**Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak /**

**Rules for the submission of originals**

1427

# Presentación

Imagina un lugar donde las palabras te protegen, las ideas te defienden, los pensamientos crecen y la información te conduce hasta la clave del conocimiento. Lo has imaginado bien, estás en una biblioteca.

Según el *Directorio de bibliotecas españolas*<sup>1</sup>, elaborado por el Ministerio de Cultura y Deporte, la Comunidad Foral de Navarra cuenta con 167 bibliotecas. Una cifra que en sí misma puede no constituir un dato relevante, salvo que lo comparemos con otras comunidades autónomas de similar composición provincial, pero sí es un dato rotundo que permite afirmar que el número de las mismas no es una cifra en absoluto desdeñable si se tiene en cuenta la población de nuestra comunidad.

Resulta más ilustrativo analizar, si acaso someramente, la tipología de este conjunto de instituciones bibliotecarias entre las que destacan como mayoritarias las bibliotecas públicas, que superan el cincuenta por ciento de los centros referenciados en el *Directorio*. Una amplia red territorial, conocida y reconocida, que está liderada por la Biblioteca de Navarra.

Enraizadas en el tiempo y poseedoras de importantes tesoros bibliográficos, las doce bibliotecas que, pertenecientes a instituciones religiosas, se señalan como bibliotecas patrimoniales, son tan solo una muestra de la riqueza que de este tipo de fondos se albergan en otras bibliotecas.

Y junto a ellas, bibliotecas auxiliares de archivos y museos, de asociaciones y colegios profesionales, de centros sanitarios, de la Administración y de diversas instituciones y organismos que en la profesión agrupamos bajo la denominación de bibliotecas especializadas.

Finalmente, y de manera precisa, se señalan los once centros que se distribuyen entre los campus de las tres bibliotecas universitarias que se localizan en Navarra.

1 <http://directoriobilbiotecas.mcu.es>

Señalar que están ausentes de esta relación las bibliotecas escolares. Este *Directorio*, elaborado por el Ministerio de Cultura y Deporte, no se ocupa de ello, como no lo va a hacer esta revista monográfica que presentamos. Sin duda, en Navarra existen bibliotecas escolares, de hecho en algunos centros educativos son un verdadero recurso para la enseñanza y el aprendizaje, pero no se dispone de suficientes datos y referentes claros de sus realidades.

Pretender abarcar en las páginas que conforman esta revista una narración exhaustiva de esta riqueza bibliotecaria de Navarra es una tarea que se muestra imposible. Por ello, los diecinueve artículos que componen este número de la revista *Príncipe de Viana* quieren ser los trazos o líneas destacadas del mapa bibliotecario de nuestro territorio y constituyen una oportunidad extraordinaria para dibujar una panorámica de la que, hasta ahora, se carecía. Este recorrido por las diferentes tipologías bibliotecarias, con ejemplos concretos de su quehacer, se completa con temáticas que les son cercanas y con protagonistas indiscutibles como sus profesionales y los propios lectores.

Si bien se acaba de señalar que se carece de una panorámica general de las bibliotecas de Navarra, por fortuna se dispone de un trabajo que nos ofrece un análisis muy valioso del conjunto de las bibliotecas y servicios bibliotecarios presentes en Navarra, el *Estudio de impacto socioeconómico de las bibliotecas de la Comunidad Foral de Navarra* (2016)<sup>2</sup>. Este análisis del Sistema de Bibliotecas de Navarra abarca el estudio de 135 bibliotecas, de las que se disponían datos precisos, y sobre todo pone en valor su rentabilidad económica y su impacto social. El estudio fue realizado con la colaboración de todas las bibliotecas y sus profesionales e impulsado desde el Consejo de Cooperación Bibliotecaria del Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, y se explica más en detalle en el artículo firmado por Fernando Ross.

Los profesionales bibliotecarios son los protagonistas del artículo que presenta Clara Flamarique, «(Una) historia de ASNABI, a punto de cumplir veinticinco años». Si bien esta asociación bibliotecaria, consolidada en el tiempo, ha estado mayormente ligada a los profesionales de las bibliotecas públicas, no es desdeñable, como afirma la autora, el papel que ha desempeñado en el desarrollo, visibilización y reconocimiento de la profesión bibliotecaria en Navarra y cómo, de alguna manera, ha influido en la transformación de las bibliotecas.

En el año 2020 la Biblioteca de Navarra cumple 150 años, desde que el Instituto Provincial de Segunda Enseñanza de Pamplona se abriese al público en 1870 como biblioteca pública provincial. Un arraigo en la historia que ha contribuido a la riqueza de sus colecciones, y no solo de manera cuantitativa. Instalada en el imaginario colectivo como «Biblioteca General de Navarra», compendia en sí misma y sus colecciones precisamente la generalidad de varias tipologías bibliotecarias y, aunque el artículo que se ocupa de la misma lo firma Amaya Prado, son varias las referencias que se señalan en otros artículos. Además de la mayor biblioteca pública de la Comunidad, es una biblioteca con importan-

2 <http://www.elvalordelasbibliotecas.es>

tes colecciones patrimoniales, con fondos especializados en áreas no solo bibliográficas y con una responsabilidad legal que garantiza la conservación, el Depósito Legal.

Es este, el Depósito Legal, el tema del artículo firmado por María Luisa Garcés quien analiza esta disposición desde su implantación en 1958 y cómo su evolución y adaptación a los tiempos alcanza ya a la información que se almacena en la web.

Como muestra de las colecciones reseñables, y hasta singulares, que se albergan en la Biblioteca de Navarra, Juan Francisco Elizari y Fernando Cirauqui hacen una presentación muy detallada de «La biblioteca taurina de José Luis Ibarra», donada en 1947 por su viuda y que es de gran interés por la temática y rareza de sus obras.

Sorprenderá la inclusión, en este recorrido por las bibliotecas navarras y sus colecciones, de la documentación cinematográfica y audiovisual, más propia de las filmotecas. Pero, como señala Juan Francisco Elizari en el artículo «El patrimonio cinematográfico y audiovisual en la Biblioteca y Filmoteca de Navarra», esta documentación ha convivido de manera natural con la bibliográfica a lo largo del tiempo y, al margen de los vaivenes de su dependencia administrativa, se mantienen unidos más allá de albergarse en el mismo edificio.

Pero, sobre todo, es el carácter patrimonial de los numerosos volúmenes que alberga lo que define a la Biblioteca de Navarra. De manera muy acertada, Roberto San Martín alude a su riqueza relativa al patrimonio bibliográfico, en un artículo que va más allá de la colección de esta y otras bibliotecas patrimoniales. El «Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico de Navarra»<sup>3</sup> es un proyecto colaborativo de identificación y difusión de los fondos y colecciones bibliográficas patrimoniales, tanto públicas como privadas, que no se encuentran exclusivamente en centros bibliotecarios. San Martín realiza un recorrido por esas instituciones y colecciones y advierte, a modo de reflexión constructiva, la necesidad de continuar trabajando en la identificación de esta riqueza patrimonial.

Dado lo imposible de presentar todas estas instituciones con fondos patrimoniales, se han elegido dos muy relevantes y significativas. «La Biblioteca Central (provincial) de Capuchinos de Pamplona Extramuros», en un artículo firmado por Miren Lara y José Ángel Echeverría. Y, con el título de «Biblioteca capitular, huellas en la memoria cultural de Pamplona», Ainara Galarza y Álvaro Aranguren centran su exposición en la catedral de Pamplona.

La identificación y difusión del patrimonio bibliográfico conllevan de manera ineludible la conservación y preservación, aspectos todos que se unen, con las posibilidades que aporta la tecnología de nuestros tiempos, en herramientas también colaborativas, como la Biblioteca Navarra Digital (BiNaDi). De su origen, evolución y características da cuenta Amaya Prado.

<sup>3</sup> [https://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Bibliotecas/Catalogos/catalogo\\_patrimonio.htm](https://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Bibliotecas/Catalogos/catalogo_patrimonio.htm)

Mención precisa merecen aquellas bibliotecas que concentran sus colecciones en una determinada disciplina o grupo de disciplinas particulares o que ofrecen servicios a usuarios específicos interesados en un tema, profesión o actividad o proyecto determinado. Profesionalmente las denominamos bibliotecas especializadas y son posiblemente las instituciones más desconocidas, pero cada día más necesarias en un contexto donde la especialización es un valor.

En el *Estudio de impacto socioeconómico*, que se citaba al inicio, fueron treinta y cinco las bibliotecas que se analizaron, bibliotecas de archivos, museos, asociaciones, de colegios profesionales, de unidades de la Administración o de Ciencias de la Salud, unidades de información que constituyen un mosaico bibliotecario muy variado, desde una institución como el Parlamento de Navarra hasta el Colegio Oficial de Abogados.

Para dar testimonio de alguna de ellas, María Pilar Los Arcos centra su colaboración en la «Biblioteca del Archivo de Navarra», importante y valioso recurso de esta institución de la memoria, tanto en el Archivo Real y General como en el Archivo Administrativo.

En el espacio de los museos, y sin obviar lo valioso y voluminoso de los fondos de Museo de Navarra o la especificidad en el Museo del Carlismo, se ha querido destacar la biblioteca de un museo que se construye sobre una biblioteca personal. Borja González, en su artículo «El Centro de Estudios del Museo Oteiza y su biblioteca», expone esta simbiosis de una biblioteca y centro de documentación que se sustenta en la biblioteca y archivo personal del escultor.

Desde otra perspectiva, y trascendiendo la individualidad de una persona, el artículo de Amaia Barandica y Rut Iturbide se centra en toda una colectividad, el «Centro de documentación-Biblioteca de mujeres de la Fundación IPES», un servicio especializado en documentación sobre mujeres, género y feminismos que, en funcionamiento desde 1985, es un referente para los estudios de género, que alberga un importante volumen de obras en diferentes soportes. Un centro cuyo dinamismo e influencia se refuerza con su pertenencia a la Red de Centros de Documentación y Bibliotecas de Mujeres del Estado.

Finalmente, y sin demérito de ninguna de las bibliotecas especializadas referenciadas y existentes, se muestra especialmente interesante la Biblioteca de Ciencias de la Salud del Departamento de Salud. M.ª Ángeles Rodríguez y Juan López ilustran de manera detallada y muy documentada cómo un conjunto de bibliotecas especializadas en el campo de la salud ha evolucionado hacia un modelo de gestión virtual, en la que sus recursos y servicios se ofertan en línea, siendo esta la más adecuada para los profesionales que las utilizan.

Continuando en el ámbito de los fondos especializados, y adentrándose en la esfera de las bibliotecas de instituciones educativas, Arantza Etxeberria colabora con un artículo sobre la «Biblioteca de la Ciudad de la Música» (la biblioteca de un centro de enseñanza superior), un centro cuya joven historia adquiere sonoridad y singularidad al constituir la única biblioteca especializada en música de Navarra.

Instituciones imprescindibles en el ámbito educativo, aunque no solo para la enseñanza, son las bibliotecas universitarias. Navarra cuenta con tres universidades que disponen de magníficas bibliotecas distribuidas en sus campus. Herramientas de aprendizaje e instrumentos de apoyo a la docencia y la investigación, estas bibliotecas nacen de forma paralela a las propias universidades, hace varias décadas, como la Biblioteca de la Universidad de Navarra, creada en 1952 y asociada a un nombre propio y referente en la profesión, Álvaro d'Ors, cuya historia, trayectoria y servicios se analiza en el artículo de Isabel Iribarren y Víctor Sanz; o como la Biblioteca de la Universidad Pública de Navarra, que este año 2019 cumple su vigésimo quinto aniversario y que, en el emblemático edificio diseñado por Francisco Javier Sáenz de Oiza, constituye el *pulmón* de la universidad, como relata Belén Altuna. Ambas bibliotecas, en consonancia con los tiempos, ofrecen sus servicios automatizados, incrementan sus colecciones en gran medida electrónicas, trabajan en redes y mejoran sus prestaciones a la comunidad universitaria, docente e investigadora, en ámbitos como la visibilidad de la producción científica, su valoración a través de estudios bibliométricos o el acceso abierto a la investigación.

La descripción hasta aquí realizada corresponde al grueso de los trabajos que se incluyen en este número monográfico pero, como se indicaba al comienzo, no constituyen el grueso de bibliotecas de Navarra, ese lugar corresponde a la biblioteca pública, la institución más próxima a la ciudadanía y que en nuestra comunidad tiene una importante extensión territorial. Una presencia en pueblos y ciudades que le permite constituirse en eje vertebrador del territorio. En 2020 la Red de Bibliotecas Públicas de Navarra cumple setenta años, es una red bibliotecaria sólida en su historia y única en su organización y estructura; sobre estos años de historia y sus principales hitos escribe su artículo Mikel Zuza.

En nuestro pueblo el papel que desempeña la biblioteca es fundamental. Los niños desde muy pequeños tienen su espacio, están muy familiarizados y se crea una relación importante con la biblioteca, es un lugar acogedor, que guarda cultura, ocio, sabiduría y donde confluyen personas de todas las edades y todas tienen su sitio. No imagino mi pueblo sin biblioteca.

Esta es una de las muchas opiniones recabadas en encuestas realizadas a la ciudadanía en el marco del *Estudio de impacto socioeconómico*. Es la voz de las personas que acuden a las bibliotecas y que, como no puede ser de otra manera, tienen que estar presentes en esta panorámica bibliotecaria.

Se cuentan por cientos las actividades que, más allá de sus recursos, colecciones y servicios, realizan las bibliotecas, entre ellas destacan sobremanera los clubes de lectura, porque es ahí donde las personas son las auténticas protagonistas, donde la propia biblioteca se enriquece con su opinión, su debate y la construcción de otras narrativas que, en cada tertulia, se suman a las colecciones de la biblioteca y contribuyen a la riqueza del saber albergado en sus estantes. Jesús Arana, conocedor y articulador de estos encuentros lectores, ofrece una panorámica detallada de sus dinámicas.

Este conjunto de artículos pone de manifiesto la importante riqueza y diversidad bibliotecaria que tiene Navarra; plasmarlo en un número monográfico de la revista

*Príncipe de Viana* es una oportunidad que los profesionales debemos aprovechar para visibilizar la potencialidad del tejido bibliotecario y, más allá del mero conocimiento, forjar alianzas y reforzar las existentes de manera que las bibliotecas, todas, sean la puerta de acceso a la información y el conocimiento que nos significa y define.

En un momento en que los gobiernos, las instituciones, las asociaciones y la ciudadanía trabajan en la construcción de un mundo más sostenible y justo para todas las personas y países en el Marco de la Agenda 2030 y sus Objetivos de Desarrollo Sostenible, todas las bibliotecas están llamadas a ser agentes activos para su consecución. *Sin dejar a nadie atrás*, las instituciones bibliotecarias pueden y deben contribuir al logro de metas y objetivos y, de manera clara, pueden hacer cierta la meta 16.10 que habla de «Garantizar el acceso público a la información y proteger las libertades fundamentales».

El reto nos corresponde a todas, las bibliotecas y sus profesionales.

Asun Maestro Pegenaute  
Directora del Servicio de Bibliotecas  
Dirección General de Cultura  
Institución Príncipe de Viana

# Aurkezpena

Irudikatu leku bat; bertan hitzek babesten zaituzte, ideiek defendatzen zaituzte, pentsamenduaak hazten dira eta informazioak ezagutzaren gakoraino eramaaten zaitu.

Ondo irudikatu duzu, liburutegi batean zaude.

Kultura eta Kirol Ministerioak landuriko *Espainiako liburutegien direkториоaren*<sup>1</sup> arabera, Nafarroako Foru Komunitateak 167 liburutegi ditu. Zifra hori, berez, ez da datu garrantzitsua beharbada, salbu eta antzeko probintzia osaera duten beste autonomia erkidego batzuekin alderatzen badugu. Edonola ere, datu biribila da, eta hari esker baieztatzen ahal dugu Nafarroako liburutegien kopurua aintzat hartzeko modukoa dela gure komunitateko biztanleria kontuan hartzen badugu.

Argigarriagoa da aztertzea, azaletik bada ere, liburutegi erakunde horien tipologia aztertzea. Horien artean, liburutegi publikoak dira nagusi, *Direktorioan* bilduriko zenstroen ehuneko berrogeita hamar baino gehiago baitira. Lurralde sare zabala, ezaguna eta aitortua da, eta Nafarroako Liburutegia da sareko liburutegirik garrantzitsuena.

Bestalde, denboran sustraiturik eta bibliografia altxor garrantzitsuen edukitziale, ondare liburutegitzat jotzen diren erakunde erlijiosoetako hamabi liburutegiak ditugu. Beste liburutegi batzuetan halako funtsek duten aberastasunaren erakusgarri baino ez dira ondare liburutegi horiek.

Hirugarrenik, artxibo eta museoen, profesionalen elkartea eta elkargoen, osasun zenstroen, Administrazioaren eta askotariko erakunde eta organismoen liburutegi osagarrriak ditugu; gure lanbidean liburutegi espezializatu esaten diegu halakoei.

Azkenik, eta zehatz-mehatz, hamaika zentro daude Nafarroako hiru unibertsitate liburutegietako campusetan banaturik.

1 <http://directoriobibliotecas.mcu.es>

Eskola liburutegiak ez daude bildurik zerrenda horretan. Kultura eta Kirol Ministerioak egindako *Direktorio* hori ez da horretaz arduratzen, ezta aurkezten dugun aldizkari monografiko hau ere. Zalantzarak gabe, Nafarroan badira eskola liburutegiak; izan ere, ikastetxe batzuetan irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako baliabide garrantzitsuak dira, baina ez dago haien errealityean gaineko behar adina datu eta erreferente argirik.

Ezinezkoa da aldizkari hau osatzen duten orrialdeetan Nafarroako liburutegi aberastasun horren kontakizun zehazta erabat biltzea. Hori dela eta, *Príncipe de Viana* aldizkariaren ale hau osatzen duten hemeretzi artikuluen bidez gure lurraldeko liburutegi maparen lerro nabarmenak zehaztu nahi dira, eta aukera paregabeak dira orain arte ez zegoen panoramika bat marrazteko. Liburutegi mota desberdinako ibilbide honek liburutegien zereginaren adibide zehatzak jasotzen ditu, eta hurbileko gaiekin eta protagonista ukaezinekin dago osaturik, hala nola, profesionalekin eta irakurleekin.

Nafarroako liburutegien panoramika orokorrik ez dagoela adierazi berri badugu ere, zorionez Nafarroan dauden liburutegi denen eta liburutegi zerbitzu guztien oso azterketa baliotsua eskaintzen digun lan bat badaukagu: «Nafarroako Foru Komunitateko liburutegien eragin sozioeconómicoari buruzko ikerlana» (2016), hain zuzen<sup>2</sup>. Nafarroako Liburutegi Sistemaren azterlan horrek 135 liburutegiren azterketa hartzen du bere baitan, horiei buruzko datu zehatzak baitzeuden eskura, eta haien errentagarritasun ekonomikoa eta eragin soziala balioesten ditu batez ere. Azterlana liburutegi guztien eta horien profesionalen laguntzarekin egin zen, eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Liburutegi Lankidetzarako Kontseiluak bultzatu zuen. Fernando Ross-ek sinatutako artikuluan xehetasun handiagoz ematen da azterlan haren berri.

Liburutegiko profesionalak dira Clara Flamariquek aurkezten digun artikuluaren protagonistak, «ASNABIREn historia (bat), hogeita bost urte betetzean dagoela». Liburu-zainen elkarre hori denborarekin indartu egin da. Nahiz eta liburutegi publikoetako profesionalei lotuta egon den gehienbat, ez da batere txikia, egileak dioen bezala, Nafarroako liburutegi lanbidearen garapenean, ikusgarritasunean eta aintzatespenean izan duen eginkizuna eta, nolabait, liburutegien eraldaketan izan duen eragina.

2020. urtean Nafarroako Liburutegiak 150 urte beteko ditu, 1870. urtean ireki baitzuten Iruñeko Bigarren Hezkuntzako Institutu Probintziala herritarrentzako liburutegi publiko probintzial gisa. Historian sustraiturik egoteak nabarmen faboratu du Liburutegiko bildumen aberastasuna, eta ez bakarrik modu kuantitatiboan. Iruditeria kolektiboan «Nafarroako Liburutegi Nagusia» izenez finkaturik, bere baitan eta bere bildumen bidez laburten du, hain zuzen ere, liburutegi mota desberdin guztien orokortasuna. Amaya Pradok sinatzen du horri buruzko artikulua, baina beste artikulu batzuetan ere aurkituko ditu irakurleak erakunde horri buruzko erreferentziak. Gure komunitateko liburutegi publikorik handiena izateaz gain, ondare bilduma garrantzitsuak ere baditu,

2 <http://www.elvalordelashbibliotecas.es>

hainbat arlotan –ez soilik bibliografikoetan– espezializatutako funtsekin eta kontserba-zioa bermatzen duen legezko erantzukizun batekin: lege gordailuarekin.

Horixe da, hain zuen ere, María Luisa Garcésen artikuluaren gaia. Bertan, 1958an ezarri zen xedapen horren historia aztertzen da, izan duen bilakaera aztertzet etaz egungo mundura nola egokitu duten azalduz (adibidez, gaur egun informazioa sarean gorde-tzen da).

Nafarroako Liburutegiko bilduma aipagarri eta are berezien erakusgarri, Juan Francisco Elizari eta Fernando Cirauquik oso xehetasun handiz aurkeztu digute «José Luis Ibarraren zezen liburutegia». José Luis Ibarraren alargunak eman zuen dohaintzan 1947an liburutegi hori, eta oso interes handikoa da, gaiagatik ez ezik, obra bitxiak dituelako ere bai.

Harrigarria irudituko zaio irakurleari, agian, Nafarroako liburutegietako eta bil-dumetako ibilbide honetan dokumentazio zinematografikoa eta ikus-entzunezkoa ere sartu izana, kontuan izanik zinematekei dagokiela hori hein handiagoan. Baino, Juan Francisco Elizarik «Zinema eta ikusentzunezko ondarea Nafarroako Liburutegi eta Filmotekan» artikuluan adierazten duen bezala, dokumentazio hori modu naturalean bizi izan da, denboran zehar, dokumentazio bibliografikoarekin, eta bere administrazio mendekotasunak izandako gorabeherak alde batera utzita, lotuta mantentzen dira, eta ez soilik eraikin berean daudelako.

Baina, batez ere, Nafarroako Liburutegiaren ezaugarri nabarmengarriena gordetzen dituen bolumen ugarien ondare izaera da. Roberto San Martínek bere artikulan oso egokiro adierazten digunez, liburutegi hori oso aberatsa da ondare bibliografikoari dagokionez, ondare horren eta beste ondare liburutegi batzuen bildumatik haratago doan idatzi batean. «Nafarroako Ondare Bibliografikoaren Katalogo Kolektiboa»<sup>3</sup> lankidetza proiektu bat da, ondare funts eta bilduma bibliografiko publiko zein pribatuak –ez soilik liburutegietan daudenak– identifikatzeko eta zabaltzeko. San Martínek ibilbide bat egin du erakunde eta bilduma horietan zehar, eta hausnarketa konstruktibo gisa, ohartarazten digu ondare aberastasun hori identifikatzeko lanean jarraitu beharra dagoela.

Ezinezkoa denez ondare funtsak dituzten erakunde horiek guztiak aurkeztea, oso garrantzitsuak eta esanguratsuak diren bi aukeratu dira. Batetik, «Kaputxinoen Liburutegi Nagusia (probintziala) Iruña Extramuros-en», Miren Lara eta José Ángel Echeverría-k sinatutako artikulu batean azaltzen dena. Eta bestetik, «Liburutegi kapitularra, oinatzak Iruñeko memoria kulturalean» izeneko lanean, Ainara Galarzak eta Alvaro Arangurenek Iruñeko katedrali buruz hitz egiten digute.

<sup>3</sup> [https://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Bibliotecas/Catalogos/catalogo\\_patrimonio.htm](https://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Bibliotecas/Catalogos/catalogo_patrimonio.htm)

Ondare bibliografikoa identifikatu eta hedatzeak ezinbestean dakar berekin kontserbatu eta babestu beharra, eta alderdi horiek guztiak bat egiten dute gure garaiko teknologiak ematen dituen aukerekink, lankidetzakoak ere izaten ahal diren tresnetan, hala nola Nafarroako Liburutegi Digitalean (BiNaDi). Liburutegi horren jatorri, bilakaera eta ezaugarrien berri ematen digu Amaya Pradok.

Aipamen zehatza merezi dute bildumak diziiplina jakin batean edo diziiplina talde zehatzent batean biltzen dituzten liburutegiek, baita gai, lanbide edo jarduera edo proiektu jakin batean interesa duten erabiltaile espezifikoei zerbitzuak eskaintzen dizkieten liburutegiek ere. Gure lanbidean liburutegi espezializatu deitzen zaie halakoei, eta ziurrenik erakunde ezezagunenak badira ere, gero eta beharrezkoagoak dira, espezializazioak balio erantsia duen testuingurueta, behinik behin.

Hasieran aipatu dugun «Eragin sozioekonomikoari buruzko ikerlana» deritzonean, hogeita hamabost liburutegi aztertu ziren, artxibo, museo, elkartea, elkargo profesional eta Administrazioaren edo Osasun Zientzien unitateetako liburutegiak, hain zuen. Informazio unitate horiek askotariko liburutegi mosaiko bat osatzen dute: Nafarroako Parlamentua, Abokatuen Elkargo Ofiziala eta abar.

Horietako batzuei buruz hitz egiteko, María Pilar Los Arcosek «Nafarroako Artxiboko liburutegia» zentroan jartzen du arreta bere lanean, oroimenaren erakunde horren baliabide garrantzitsu eta baliotsua izaki, dela Nafarroako Errege Artxibo Nagusian dela Nafarroako Administrazio Artxiboa.

Museoen gunean, eta Nafarroako Museoko funtsen balio eta tamaina handia edo Karlismoaren Museoaren berezitasuna alde batera utzi gabe, liburutegi pertsonal baten gainean fundaturiko museo baten liburutegia nabarmendu nahi izan da. Borja Gonzálezek, «Oteiza Museoaren ikastegia eta liburutegia» izeneko artikuluan, liburutegi baten eta dokumentazio zentro baten sinbiosi hori azaltzen du eta eskultorearen liburutegi eta artxibo pertsonalean oinarritzen da.

Beste ikuspegi batetik, eta pertsona baten indibidualtasunetik haraindi, Amaia Barandica eta Rut Iturbideren artikuluak kolektibitate oso bat du ardatz, «IPES Fundazioaren Emakumeen Dokumentazio Zentro eta Liburutegia», emakumeei, generoari eta feminismoei buruzko dokumentazioan espezializatutako zerbitzua. 1985an abiarazi zen zentro hori, genero ikasketetarako erreferentea da, eta obra ugari biltzen ditu askotariko euskarrieta. Zentro horren dinamismoa eta eragina indartu egin zen Estatuko Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sareko kide bihurtu zenean.

Azkenik, eta arestian aipatu ditugun liburutegi espezializatuak –baita existitzen diren gainerakoak ere– inolaz ere ahaztu gabe, bereziki interesgarria da Osasun Departamentuko Osasun Zientzien Liburutegia. M.<sup>a</sup> Ángeles Rodríguezek eta Juan Lópezek zehatz-mehatz –eta oso ondo dokumentatu ondoren– adierazten digute osasunaren arloan espezializatutako liburutegien multzo batek kudeaketa eredu birtual bat bihurtzenako bilakaera izan duela, eta eredu horretan, baliabideak eta zerbitzuak *online* eskaintzen direla, eta hori dela egokiena halakoak erabiltzen dituzten profesionalentzat.

Funts espezializatuen eremuan jarraituz, eta hezkuntza erakundeen liburutegien eremuan sarturik, Arantza Etxeberriak «Musikaren Hiriko Liburutegia» (goi mailako irakaskuntza zentro bateko liburutegia) zentroari buruzko artikulu batekin kolaboratu du. Zentro horren historia laburra sonoritate eta berezitasun handikoa da, musikan espezializatutako Nafarroako liburutegi bakarra baita.

Unibertsitate liburutegiak, bestalde, ezinbestekoak dira hezkuntza arloan, eta ez soilik irakaskuntzarako. Nafarroak hiru unibertsitate ditu, eta liburutegi bikainak dituzte beren campusetan banatuta. Irakaskuntzari eta ikerkuntzari laguntzeko tresnak eta ikasteko erreminta horiek unibertsitateekin batera sortu ziren duela hamarkada batzuk; halako kasuak dira, esate baterako, Nafarroako Unibertsitateko Liburutegia, 1952an sortua eta lanbideko izen propio eta erreferente batekin lotua, Álvaro d'Ors-ekin, alegia (haren historia, ibilbidea eta zerbitzuak Isabel Iribarren eta Víctor Sanzen artikuluan aztertzen dira); eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Liburutegia, 2019an hogeita bost urte bete zituena eta, Francisco Javier Sáenz de Oizak diseinatutako eraikin emblematicoan kokaturik, unibertsitatearen *birika* osatzen duena, Belen Altunak kontatzen digun bezala. Bi liburutegi horiek, egungo garaiarekin bat etorriz, zerbitzu automatizatuak eskaintzen dituzte, bilduma elektronikoak neurri handi batean areagotzen dituzte, sareetan lan egiten dute eta unibertsitate, irakaskuntza eta ikerketa komunitateari ematen dizkioten prestazioak hobetzen dituzte hainbat esparrutan, hala nola ekoizpen zientifikoaren ikusgarritasunean, azterketa bibliometrikoen bidezko balorazioan edo ikerketarako sarbide irekian.

Honaino egindako deskribapena aldizkari monografiko honetan sartzen diren lan gehienei dagokie, baina, hasieran adierazi den bezala, ez dira Nafarroako liburutegi guztien zati handiena; toki hori liburutegi publikoari dagokio, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea izaki, gure komunitatean lurralte hedadura handia baitute liburutegi publikoek. Herriean eta hirietan daudenez, ardatz egituratzale dira, gure lurraldean, liburutegi publikoak. 2020an Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareak hirurogeita hamar urte beteko ditu, eta historia sendoa izanik, oso antolaketa eta egitura bereziko liburutegi sarea dugu; Mikel Zuzak historiako urte horiei eta jazoera nagusiei buruz idazten digu bere artikuluan.

En nuestro pueblo el papel que desempeña la biblioteca es fundamental. Los niños desde muy pequeños tienen su espacio, están muy familiarizados y se crea una relación importante con la biblioteca, es un lugar acogedor, que guarda cultura, ocio, sabiduría y donde confluyen personas de todas las edades y todas tienen su sitio. No imagino mi pueblo sin biblioteca<sup>4</sup>.

«Eragin sozioekonomikoari buruzko ikerlana» deritzonaren esparruan herritarrei egindako inkestetan, hain zuzen ere, iritzi hori jaso da, besteak beste. Liburutegietara

<sup>4</sup> Liburutegiak funtsezko eginkizuna du gure herrian. Haurrek txiki-txikitatik dute beren lekua liburutegian, ohitu egiten dira liburutegira eta harreman garrantzitsua sortzen dute liburutegiarekin; leku abegikorra da, kultura, aisiaaldia eta jakinduria gordetzen ditu, eta adin guztiak pertainak elkartzen dira bertan; guztiak dute beren lekua liburutegian. Ez dut irudikatzen nire herria liburutegirik gabe.

joaten diren pertsonen iritziak dira, eta, nola ez, liburutegien ikuspegi orokor horretan bilduta egon behar dute iritzi horiek.

Liburutegiek, beren baliabide, bilduma eta zerbitzuez gain, ehunka jarduera egiten dituzte, eta horien artean irakurle klubak dira nabamentzen dira, pertsonak izaten baitira horien benetako protagonistak. Izan ere, bertan, liburutegia bera aberasten da parte-hartzaleen iritziekin, eztabaidearekin eta beste narratiba batzuen sorkuntzarekin. Narratiba horiek, solasaldi bakoitzean, liburutegiko bildumei gehitzen zaizkie, eta liburutegietako apalategietan dagoen jakintza aberasten laguntzen dute. Jesús Aranak ondo ezagutzen ditu irakurleen topaketa horiek, eta horregatik, modu antolatuau aurkezten dizkigu bere artikuluan, horien dinamiken panoramika zehatza emate aldera.

Artikulu horiek guztiak agerian uzten dute Nafarroako liburutegiak aberastasun eta aniztasun handikoak direla; *Príncipe de Viana* aldizkariaren ale monografiko batean islatzea aukera ona da jakiteko profesionalek zer aprobetxatu behar dugun liburutegi ehunaren ahalmena ikusarazteko eta, ezagutza hutsaz harago, aliantza berriak sortzeko eta lehendik zeuden aliantzak indartzeko, liburutegiak –guztiak– nabamentzen eta definitzen gaituen informazioa eta ezagutza eskuratzeko ate izan daitezen.

Gaur egunean, gobernu, erakunde, elkartea eta herritarra ahalegin handiak egiten ari dira pertsona eta herrialde guztientzat jasangarriagoa eta bidezkoagoa izanen den mundu bat sortzeko, 2030 Agendaren eta haren Garapen Jasangarriko Helburuen esparruan. Beraz, liburutegi guztiak eragile aktibo izan behar dori lortzeko zereginan. *Inor ere atzean utzi gabe*, liburutegi erakundeak xedeak eta helburuak lortzeko lagungarriak izaten ahal dira eta, are gehiago, horretan lagundu behar dute; izan ere, argi dago liburutegiek 16.10 helburua betetzen ahal dutela, hau da, «Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarritzko askatasunak babestea».

Erronka guztiloi dagokigu, nola liburutegiei hala esparru horretako profesionalei.

Asun Maestro Pegenaute  
Liburutegien Zerbitzuko Zuzendaria  
Vianako Printzea Erakundea  
Kultura Zuzendaritza Nagusia